



GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAK 2024KO URTARRILAREN 29AN EGINDAKO BILERAREN AKTA

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) egin da Kontseilu Errektorearen bilera, 2024ko urtarrilaren 29an, 12:00etan hasita. Honako pertsonak parte hartu dute:

- Nerea Melgosa Vega andrea, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (aurrerantzean, eLankidetzeta) presidentea eta haren Kontseilu Errektoreko presidentea.
- Batzordekidea: Asier Aranbarri Urcelai jauna, Berrikuntza Sozialeko Aholkularia. Telematikoki hartu du parte, bere ordezkariarekin batera. Mikel Hidalgo Bordegarai jauna, Berrikuntza Sozialeko Aholkularia da ordezkaria.
- Batzordekidea: Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Osasun Saileko Osasun Programen eta herritarrekiko Harremanen Aholkularia. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Fernando Iturriaga jauna, Programen eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Jone Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- Batzordekidea: Martín Iriberrri jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- Batzordekidea: Elsa Fuente Do-Rosario andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Maitane Ipiñazar andrea, Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Justiziaren Batzordeko presidentea. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Diana Urrea Herrera andrea, Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Justiziaren Batzordeko kidea. Telematikoki parte hartu du.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria.

Halaber, honako hauek hartu dute parte gonbidapen bidez, gai-zerrendan jasotako gaien aurkezpen teknikoan laguntzeko: Alazne Camiña andrea, elankidetzako koordinazio teknikoko arduraduna; Amaia Etxabari andrea, eLankidetzako teknikari nagusia; Noemí De la Fuente andrea, eLankidetzako koordinazio estrategikoko zerbitzuaren arduraduna eta Pilar Díez Arregui andrea, eLankidetzako Ekintza Humanitarioko lankidetzateknikaria.

Sarrera

Sailburuak hartu du hitza. Ongietorria egin die parte-hartzaileei eta hasiera eman dio saioari. Honako hau da saioaren gai-zerrenda:

1. *2023ko azaroaren 27an egindako azken saioko akta irakurri eta onartzea.*
2. *2024ko Jardueren Urteko Plana onartzea.*
3. *2024ko Funts Banagarriak eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea..*
4. *2024ko laguntzak eta dirulaguntzak esleitzeko irizpide orokorrak onartzea.*
5. *2024ko laguntzen eta dirulaguntzen deialdiaren egutegiaren aurreikuspenari buruzko informazioa.*
6. *2018-2023ko Ekintza Humanitarioaren Estrategiaren luzapena onartzea.*
7. *Hitzarmenen proposamenak, jarduteko protokolo orokorrak eta dirulaguntza zuzenak onartzea.*
8. *eLankidetzaren eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailaren arteko kudeaketa agintzeko akordioa onartzea.*
9. *Eskariak eta galderak..*

1. **Aurreko saioko akta irakurri eta onartzea.**

Bileran parte hartu duten pertsonak ez dute inolako oharrik egin; hortaz, 2023ko azaroaren 27ko saioko akta onartu da, bertaratutako pertsona guztien aldeko botoarekin.

2. 2024ko Jardueren Urteko Plana onartzea.

Paul Ortegak hartu du hitza 2023ko datuen laburpena eta eLankidetzaren 2024ko Jardueren Urteko Planaren puntu nagusiak aurkezteko. Ekitaldi honetarako eLankidetzaren jarduketarik esanguratsuenen programazioa azaldu du.

Aurkezpenaren ostean, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal lege berriari dagokionez, Josu Urrutiak aipatu du azken 3 urteotan lanerako harreman ona izan dela eta hurrengo etaparako GGKEen Koordinakundearen laguntza eskaini du. Paul Ortegak nabarmendu du Legearen araudiaren garapena prozesu parte-hartzailea eta kontrastatua izango dela.

Jarraian, Josu Urrutiak gogoeta egin du 2023ko datuen laburpeneko GJHen grafikoari buruz, eta kezka adierazi du, balitekeelako herritarrek ez jakitea funtsen % 20 gutxiago ari direla bideratzen batetik laura bitarteko GJHetara. Noemí De la Fuentek azaldu du proiektu batek GJH bat baino gehiago dituela, baina grafiko horretan eLankidetzan Gida Planeko ardatz estrategikoekin lotutakoak lehenetsi direla.

Horri dagokionez, Martín Iriberrik proposatu du Afrikarekin lotutako gaietan, hezkuntzan eta eragileentzako prestakuntzan, GKEak lankidetzan aritu daitezkeela.

Galdera gehiagorik egon ez denez, bozkatu egin dute, eta parte-hartzaileen gehiengoarekin eta Diana Urrearen abstentzioarekin onartu da.

3. 2024ko Funts Banagarriak eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea..

Paul Ortegak azaldu du Eusko Jaurlaritzan onartutako lankidetzarako amaierako aurrekontua 500.000 euro handitu dela. Adierazi du Legebiltzarrak zuzenketa bat egin zuela eta, hala, kopuru hori gehitu zitzaiola Eusko Jaurlaritzak hasieran aurkeztutako aurrekontuari. Nazioarteko Deialdi Humanitarioei erantzuteko zuzenketa espezifikoak izan zen.

Ondoren, Alazne Carmiñak Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aurkeztu du, ardatz estrategiko eta diruz lagundu daitezkeen ildo guztiekin. Horren barruan sartzen da ekitaldi honetarako Funts Banagarrien proposamena ere.

Atalez atal azaldu ditu helburu estrategikoak eta Funts Banagarrien proposamena, eta nabarmendu du ekintza humanitariorako proiektuentzako esleipena handitu egin dela. 10.400.000 eurokoa da orain eta proiektuen blokea da igoyerarik handiena izan duena, 40.000.000 €-ra iritsi da.

Azkenik, esan du GKE batek jaso dezakeen gehieneko kopurua 4.000.000 eurokoa dela.

Martin Iriberrik galdetu du ea programen deialdiko hornikuntza zergatik igaro den 40.000 eurotik 30.000ra eta Alazne Camiñak jakinarazi dio tresna berria denez, bere bilakaera aztertuko dela.

Presidenteak jakinarazi du puntu horren eta hurrengoaren bozketa 4. eta 5. puntuen aurkezpena amaitzean egingo dela.

4. 2024ko laguntzak eta dirulaguntzak esleitzeko irizpide orokorrak onartzea.

Alazne Camiñak deialdi bakoitzak esleitzeko irizpideak aurkeztu ditu: esleipenaren prozedura, diruz lagundu daitekeen gehieneko kopurua, funtsen erreserba eta aurkeztu daitezkeen eskaeren gehieneko kopurua.

5. 2024ko laguntzen eta dirulaguntzen deialdiaren egutegiaren aurreikuspenari buruzko informazioa.

Alazne Camiñak deialdien egutegiaren aurreikuspena aurkeztu du.

Josu Urrutiak kezka adierazi du PREn deialdietako ordutegiarengatik eta ondoz ondoko norgehiagoka izaeragatik. Eta Martín Iriberrik gehitu du 00:00etan ez dagoela laguntza teknikorik.

Alazne Camiñak erantzun die dekretu horren filosofia dela lerroa zabalik egotea modu iraunkorrean eta proposamenak beharren arabera aurkeztea. Paulek zerbitzu juridikoekin kontsultatzea eta dekretua berrikusi ondoren baloratzea proposatu du.

Josu Urrutiak funtsen eta ehunekoen banaketa aipatu du, zehazki, dirulaguntza izendunen hazkundearen eta dirulaguntzan zuzenen murrizketaren kasuan. Paulek argitu du dirulaguntza zuzena ezohiko zerbait dela eta jarraipena baldin badago izenduna izatera igarotzen dela Legebiltzarrean onartu ondoren.

Jarraian, Josu Urrutiak hainbat elkartetatik programen deialdiari buruz iritsi zaion kontsulta partekatu du: zergatik ematen zaion garrantzi handiagoa baldintzen barruan genero-planari plan estrategikoari baino. Une horretatik aurrera eztabaida sortu da kudeatzeko gaitasunari buruz eta bat egin dute erakundeen egoera finantzarioaren berri izatea interesgarria dela. Hala ere, Paul Ortegak adierazi du programen deialdia ez dela horretarako tresna.

Segidan, 3. eta 4. puntuak bozkatu dituzte. 3. puntua aldeko 10 punturekin eta Diana Urrearen abstentzioarekin onartu da. Era berean, 4. puntua aldeko 10 punturekin eta Diana Urrearen abstentzioarekin onartu da.

6. 2018-2023ko Ekintza Humanitarioaren Estrategiaren luzapena onartzea.

Pilar Diez Arregik 2018-2023rako Ekintza Humanitariorako Estrategiaren hiru urteko luzapena (2024-2026) aurkeztu du, onartzeko.

Azaldu du dokumentu estrategikoa barne-mailan berrikusteko prozesu luze baten ostean, kanpoko ikuspegi batzuekin batera, ondorioztatu dutela 2018-2023rako Ekintza Humanitariorako Estrategiak sustatutako apustuak egokiak direla eta gogoeta egiteko gai berriak hauteman dituztela, hala nola klima aldaketa, gatazkak eta lekualdatzeen arteko erlazioa, ekintza humanitarioko ekimenen ingurumeneko jasangarritasuna eta ekintza humanitarioak garapenarekin eta bakearen eraikuntzarekin duen lotura.

Nabarmendu du lan-ardatz eta jarduera berdinak mantendu direla, baina datuak eta informazioa biltzeko eta aztertzeko sistema berrikusi egingo dela, sistematizatzea eta aztertzea errazagoa izan dadin. Horrek ikasketak ahalbidetuko ditu.

Josu Urrutiak zoriondu egin ditu egiten ari diren lanarengatik eta dirulaguntzak jasotzen dituzten pertsonen kopuruaren informazioak duen garrantziari buruzko gogoeta egin du.

Noemí De la Fuentek datuen zailtasunak eta zorroztasuna azaldu ditu eta berretsi du informazio objektiboa ez baldin bada, kaltegarria izan daitekeela.

Jarraian, bozketa egin da eta aho batez onartu da.

7. Hitzarmenen proposamenak, jarduteko protokolo orokorrak eta dirulaguntza zuzenak onartzea.

Noemí De la Fuentek La Habanako Unibertsitateko Berrikuntzarako eta Garapenerako Unibertsitate Fundazioaren, Tecnia Research & Innovation Fundazioaren eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren arteko jarduketan protokolo orokorra aurkeztu du, “Kuba-Euskadi berrikuntzarako ekosistemak konektatuz (CEiCE)” proiektua sustatzeko.

Protokoloaren elementu nagusien berri eman du eta azaldu du asmo-adierazpena dela.

Aurkezpenaren ostean, bozkatu egin dute eta aho batez onartu da.

8. eLankidetzaren eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailaren arteko kudeaketa agintzeko akordioa onartzea.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren arteko kudeaketa agintzeko akordioa da, agentzia horrek kudeatutako laguntzen eta dirulaguntzen itzulketak betearazpen-bidearen bidez biltzeko.

Paul Ortegak azaldu du akordio honetan eLankidetzak Ekonomia eta Ogasun Sailari esleitzen diola dirulaguntzak jasotzen dituzten eta kopururen bat itzuli behar duten

erakundeek modu boluntarioan egiten ez dituzten itzulketak kobratzeko zeregina, beharrezko baliabide teknikoak ez dituelako.

Zerbitzu hori eskaintzeko, eLankidetzaren eskubide pribatua duen erakundea izanik, kudeaketa-agindua behar da.

Bozkatu eta aldeko boto guztiekin onartu da.

9. Eskariak eta galderak

Beste gairik proposatu ez denez, Nerea Melgosak eskerrak eman dizkie Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Lege berrian lan egiten duten pertsona guztiei, laster onartuko baitute Legebiltzarrean.

Eskerrak eman dizkie bertaratu direnei eta amaiera eman dio saioari, 13:55ean. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2. artikuluko lehenengo paragrafoan aurreikusitakoa betez, jakinarazten da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo saioan onartuko dela akta.

Oniritzia, Nerea Melgosa Vega,
eLankidetzako eta haren Kontseilu
Errektoreko presidentea.

Paul Ortega Etcheverry
Kontseilu Errektoreko idazkaria
eLankidetzako zuzendaria